



## Korapiloak askatu ditu

'Banoa' izeneko lan laburra argitaratu du Aroa Lasa 'aRo' abeslari lasarteoriatarrek. Kontzertua emango du larunbatean / 6

AROA LASA

## Ekonomikoki laguntzeko

Ostalari, merkatari eta zerbitzu enpresentzako dirulaguntza lerroa onartu du udal korporazioak / 2

Ostalaritzak erabilera bakarreko beira birziklatzeko kanpaina bat jarri du martxan udalak / 3

2020-2021 ikasturte atipikoa festarekin amaitu du LOKE kirol elkarteak Tennis sailak / 12



# Zozheta!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

ERRIGORAKO OTAR EDER BAT zozkatuko dugu izena ematen duzuen bazkideen artean.

\* Eman izena uztailaren 25a baino lehen.



harpidetza@ttakun.eus helbidean, 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)

# Pandemiaren eragina arintzen laguntzeko

Herriko merkatariari, ostalariei eta zerbitzu pertsonaletako enpresei laguntzeko 400.000 euro bideratuko ditu Lasarte-Oriako Udalak. Korporazioak oinarriak onartu ostean, eskaerak egiteko epea zabaldu da: uztailaren 8tik abuztuaren 11ra bitartekoa izango da

## Txintxarri

Koronabirusaren pandemiak herriko merkatariari, ostalariei eta zerbitzu pertsonaletako enpresei eragin dizkien kalteak arintzen saiatzeko asmoz, udal korporazioak dirulaguntza lerro baten oinarriak onartu ditu berriki. Agustín Valdivia alkateak eta Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandezek xehetu dituzte ekarpen horien nondik norakoak. 400.000 euro bideratuko ditu Lasarte-Oriako Udalak, eta kopuru hori guztia gastatu nahi du, "zentimo bat bera ere" soberan gera ez dadin.

Dirulaguntzen poltsa hori bi multzotan banatu dute: 180.000 euro ostalariak laguntzeko, eta 220.000 euro merkatariak eta zerbitzu pertsonaletako enpresak laguntzeko. Udalaren kalkuluen arabera, 90 bat tabernarik eta 278 dendak eta zerbitzu enpresak eskatuko dituzte laguntzak, baina estimazio horiek "aldatu egin daitezke", eta bi multzoetara bideratutako diru kopurua ere bai. "Demagun lerro bateko dirua amaitu egiten dela, eta bestean, aldiz, soberan dagoela; partida bat bideratuko genuke agortutako poltsa horretara, gure borondatea delako 400.000 euro horiek erabiltzea dirulaguntzetarako, ez gutxiago".



Agustín Valdivia alkatea eta Nuria Fernández Sozioekonomia batzordeburua. TXINTXARRI

Arestian aipatutako sektoreetako profesionalek egindako eskaerei erantzuteko 400.000 euro horiek nahikoa ez balira, Valdiviak eta Fernandezek jakinarazi dute establezimendu bakoitzak diru gutxiago jasoko lukeela proportzionalki, nahiz eta uste duten halakorik ez dela gertatuko, udalak aurrez kalkulatu duelako balizko onuradunen kopurua.

## Multzoak eta kopuruak

Dirulaguntzak emateko, eskaerak egiten dituzten negozioen diru-sarrerak

konparatuko dituzte: 2020. urtean izandakoak, 2019. urtekoekin. Ostalariak laguntzeko 180.000 euroko poltsa prestatu du udalak, eta bi azpimultzotan banatzen da. 1A delakoa eskatu nahi duten tabernek eta jatetxeek frogatu beharko dute 2019an baino %40 edo diru gutxiago ingresatu dutela 2020an; establezimendu bakoitzak 2.000 euro jaso ditzake gehienez. 1B laguntzarekin, aldiz, lagunduko zaie pandemia garaian, eskaera eginda ere, terrazak jarri ezin izan zuten ostalaritza establezimenduei.

Negozio bakoitzak 2.000 euro jaso ditzake asko jota. Udaleko Sozioekonomia batzordeburuaren hitzetan, bi azpimultzo horiek ez dira bateraezina; bi laguntzak eskatu eta jasotzen dituenak 4.000 euro ingresatuko ditu.

Merkatariei eta zerbitzu pertsonaletako enpresentzako laguntza lerroan ez dute multzoen arabera sailkapenik egin. Esan bezala, 220.000 eurokoa da poltsa, eta eskatzaileek egiaztatu beharko dute haien diru-sarrerak jaitsi egin direla 2020an, 2019koekin alderatuta; %40 edo gehiago. Negozio bakoitzak, gehienez ere, 1.100 euroko ekarpen ekonomikoa jasoko du.

Multzo bateko zein besteko negozioek jasoko duten diru kopurua desberdina izatearen arrazoa azaldu du Fernandezek: "Ostalariek jardura erabat eten behar izan zuten zenbait astez; merkatariak eta zerbitzu enpresek, aldiz, murrizketekin, baina lanean jarraitu ahal izan zuten".

## Uztailaren 8tik abuztuaren 11ra

Dirulaguntza jaso nahi duten establezimenduek abuztuaren 11ra arte egin ditzakete eskaerak, asteazkenarekin, egun hori barne. Eskaerak presentzialki zein telematikoki egin daitezke. "Dokumentazio gutxi eskatuko diegu pertsona fisikoei zein juridikoei; oinarritzakoa", argitu du Agustín Valdivia alkateak. Horren gaineko xehetasun gehiago kontsultatu daitezke [www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus) web orrialdean.

Alkatetza arduratuko da eskaeren ebazpenak egiteaz. Laguntzak eskatzeko epea bukatu eta 30 egun naturalera jakinaraziko ditu, gehienez. Indibidualak izango dira abisu horiek, eta horrez gain, udalaren

web-orrian onuradunen zerrenda argitaratuko dute; bertan azaltzen diren negozioek ordainketa bakarrean jasoko dute ekarpen ekonomikoa. Negozio bakoitzak besteren konturako hamabost langile edo gehiago izan ditzakete.

## Oinarriak, lankidetzan

Dirulaguntzen oinarriak aurkezteko egin duten agerraldian, Agustín Valdiviak eta Nuria Fernandezek eskerrak eman dizkiete udal korporazioa osatzen duten alderdi guztiei: "Talde guztien artean adostu genuen kaltetutako sektoreen egoera aztertzea, eta dirulaguntzen oinarriak horren arabera egitea; beti egin beharko genuke lan horrela". Batzordeetan adostutako oinarriari eragozpen txostena jarri zieten udal teknikariek, baina ekainaren 25ean egindako ezohiko udalbatzarrean altxa zuten hori. "Batzordean udal taldeek adostu zutena babestea; hori izan da Udal Gobernuak egin duena".

Udal korporazioaren helburua da COVID-19ak zenbait sektoreri eragin dizkien kalte ekonomikoak arintzea. 2021. urteko aurrekontu orokorretan jaso zuten partida, eta orain jarriko dute martxan. Valdiviak eta Fernandezek zehaztu dutenez, Aterpea elkartearekin eta Ostalaritza Lasarte-Oria eragilearekin hitz egin du udalak, eta horren ostean, deialdia egitea erabaki dute.

## UDALAREN KALKULUEN ARABERA, 90 OSTALARIK ETA 278 KOMERTZIOK ESKATU DITZAKETE LAGUNTZAK

## Ekainaren 25eko ezohiko udalbatzarra

Lasarte-Oriako udal korporazioak ekainaren 25ean onartu zituen ostalariak, merkatariak eta zerbitzu pertsonaletako enpresak laguntzeko dirulaguntzen oinarriak, aho batez. Horren aurretik, udal teknikariek jarritako eragozpen txostena altxa behar izan zuten.

Oinarriak onartzea adostu eta gero, korporazioko zenbait alderdik azalpenak eman dituzte. EAJ-PNV taldeak bat egin du dirulaguntzak martxan jartzearekin, baina kritikak azaldu da Udal Gobernuarekin: "Berandu onartu dira, eta berandu banatuko

dira". Boris Nogales zinegotziaren hitzetan, korporazioak "laguntza oso garrantzitsuak" onartu ditu, baina jakinarazi behar du horiek irail erdialdean jasoko dituztela onuradunek, "balidin eta banaketa prozesuan beste eragozpenik ez badago".

Nogalesek azaldu du talde guztiek "aho batez" onartu zutela proposamena hasieran, eta handik gutxira udal teknikariek proposamen alternatiboa aurkeztu zieten, dirua banatzeko beste modu batekin: negozioaren sektorea aintzat hartu gabe,

2020ko eta 2019ko likidazioen konparazioen diru-sarrera faltaren arabera banatzea. "Planteamendu horrek zalantza asko sortu zizkigun; Udal Gobernuari hiru aldiz jakinarazi genizkion, baina horietako bakar batean ere ezin izan genuen haiei buruz eztabaidatzeko eseri". Sozioekonomia batzordeetan "zalantzak" plazaratu zituzten jeltzaleek, baina azkenean hasierako akordioa onartzea erabaki zuten, eta hasieran adostutakoa berrestea.

EH Bilduk ere alde bozkatu du. Azaldu zuenez, "nahitaezkoa" iruditzen zaio laguntza horiek onartzea eta sektore horiek

bizi duten egoera "larriari" erantzun "azkarra" ematea. "Horretaz jabetzen gara, baina prozesua beste modu batean egingo genukeen, eta laguntza hau ildo estrategiko baten barruan txertatuko genuke". Koalizio subiranistak balioan jarri du Udal Gobernuaren elkarlanerako jarrera, "gainerako alderdien iritziak eta proposamenak entzun direlako". Edonola ere, uste du dirulaguntzen onarpenean izandako atzerapena ez dela onargarria: "Udal Gobernuari eskatzen diogu udalaren barne-antolamenduan dauden arazoak aurre egiteko".

# Ostalaritzan beira birziklatzeko kanpaina

Uztailaren bigarren hamabostaldian abiatuko dute ostalaritzan beira birziklatzeko kanpaina berria. Lasarte-Oriako Udalak, San Markos Mankomunitateak eta herriko Ostalaritza Aurrera eragileak zein Aterpea merkatarien elkarteak elkarrekin landu duten egitasmoa da

## Txintxarri

Ostalaritzan beirazko ontzien birziklapena sustatzeko kanpaina bat jarri du martxan Lasarte-Oriako Udalak. Egitasmo horren berri eman dute asteazken eguerdian Agustin Valdivia alkateak, Zerbitzuetako zinegotzi David Mateosek, San Markos mankomunitateko presidente Loreto Osak, eta Ostalaritza Aurrera plataformako eta Aterpea merkatarien elkarteko hiru ordezkariak.

Uztailaren bigarren hamabostaldian abiatuko dute aipatu kanpaina, ECOVIDRIO eta San Markos Mankomunitatearekin lankidetzan. Horretarako, ostalaritzako establezimenduei bisita egingo dietela jakinarazi dute, "ostalaritzan beirazko ontzien hondakinak birziklatzea sustatzeko, eta Lasarte-Oriako ostalaritzako enpresaburuei euren jardueraren ondorioz sortutako hondakinak ingurumenarekiko errespetu handiagoz kudeatzeko lana errazteko". Zerbitzuetako zinegotzi David Mateosek gogorarazi du hori guztia dela Europar Batasuna klima aldaketa geldiarazteko sustatzen ari den ekonomia zirkularren planteamendua.

Bisitak "langile kualifikatuek" egingo dituztela jakinarazi dute,



Egitasmoaren bultzatzaileak, aurkezpen agerraldian. TXINTXARRI

eta data bat ere eman dute; uztailaren 14an hasiko direla iragarri dute. Bisita horien lehen fasean informazioa emateaz gain, beharrak hautemango dituzte, beirazko ontzien hondakinak birziklatzea errazteko edukiera desberdinetako ontziak emanez, establezimendu bakoitzak sortzen duen beirazko hondakin bolumenaren arabera. Gerora, auditoriak egingo dira, hondakinak behar bezala bereizten direla egiaztatzeko.

Azaldu dute baita ere "landalana" egingo dutela, beirazko ontzien birziklapenaren arloko ezagutza indartzeko. Bide horretan, birziklatzeak Lasarte-Oriari sortzen dizkion

ingurumen onuren gaineko sentibilizazioa ere sustatuko dute: "Edukiontzietara botatzen den beira, %100ean birziklagarria da, eta ontzi berriak fabrikatzeko erabiltzen da behin eta berriro, jatorrizko propietateak galdu gabe".

Loreto Osa San Markos Mankomunitateko presidentek poza adierazi du egitasmoa martxan jartzeagatik, eta eskertza adierazi die kanpainen parte hartuko dute eragile ezberdinei: "Espainian merkaturatzen diren erabilera bakarreko beirazko ontzien ia %50 sortzen du ostalaritza sektoreak, beraz, birziklatze helburuak lortzeko funtsezko sektorea da".



NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

## Tximino bihurtzea

Maiz esan ohi da gizakia ume jaio eta ume hiltzen dela, alegia, zahartzen goazen neurrian umetzen joaten garela. Gutako bakoitzarentzat balio du horrek baina errezeloa daukat gizarte bezala ere halatsu gertatzen zaigula. Aurrerapen haundiak bai eremu batzutan eta ez dakit beste gauza askotan aldiz lerdotzen ari ez ote garen. Hori oharkabean pasa da neurri batean pandemia iritsi den arte. Bestelako gerrarik ez, euskal gatazka ez bada, eta gure belaunaldikooi birusaren gurutzeta egokitu zaigu eta hor agertu dira gizakion haundiuste eta miseria asko. Uste genuen jaun eta jabe ginala planetan eta ikusi ere ezin den etsai batek izututa gauzka urte terdi honetan.

Gero, zorioneko txertoa asmatuz gero, berriz ere garaitezin ikusten dugu geure burua eta hasi gara tximinoarena egiten. Zer da komeni ez dena? Ba hura egingo dugu. Eta ez gazteek bakarrik, guztiok egin dugu momenturen batean egin behar ez genuen zerbait. Eroso bizi izanaren zantzua da hori, kate motzean denbora batean lotuta egon ondoren, galdutako denbora errekueratu nahia.

Horrek atzerapausoak dakartzala birusaren kontrako borrokan? "Alla kuidados". Gora Darwinen legea eta iraun dezala egoerara ondoen egokitzen denak. Azken batean, gizakia desagertzera bidean doa eta ondo merezita gainera. Denbora kontua da: atzera bidean lehen lehenik tximino bihurtuko gara berriz ere eta ondoren, kitto.



TXINTXARRI

## Barreen zarata entzun da

Lasarte-Oriako Udalak antolatutako bakarrikzeta saioetako azkena egin zuten uztailaren 3an, larunbatarekin. Aurrekoetan baino jende gutxiago erakarri zuten Alazne Etxeberriak eta Miki Dekaik. Barreen zarata, ordea, berdin entzun zen. Ikuspegi eta bizipen oso bestelakoetatik aritu ziren 41 urteko bi aktoreak.

## PERKUSIO TAILERRA

Uztailaren 15ean 17:00etan

16 urtetik gorakoentzat

Gorputz perkusioa, darbuka, djembea eta instrumentu brasildarrak landuko dira

Izena emateko: 695 78 53 89 [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus)

Odei Astibiar  
ZONGO  
gidaritzapean



5 € bazkideak  
8€ ez bazkideak

TTa  
kun  
Kultur Ekartea

# 'Nomadak gaitun' erakusketa, Kool Studion

Euskal Herriko hogeit hamar emakume sortzaileen lanekin osatutako erakusketa ikusgai dago Kool Studion. Partaide bakoitzaren lanaren laginak eta egileei buruzko informazioa biltzen ditu. Azpeitian egingo du azoka ibiltariak lehen geldialdia

## Txintxarri

Dinagu Emakume Sortzaileen Kolektiboak *Nomadak gaitun* azoka ibiltaria abian jarri du. Elkarlanean, modu kooperatiboan, antolatutako egitasmoa da; moda, bitxigintza, dekorazio eta ilustrazio munduan diharduten Euskal Herriko hogeit hamar emakume sortzaileen produktuak biltzen ditu. Haien obrak ikusteko eta erosteko aukeraz gain, bertaritzen direnek egileak ezagutu ahal izango dituzte.

Egitasmoa ekainaren 29an aurkeztu zuten lantaldeko kideek Kool Studion (Blas de Lezo kalea, 9). Bertan, ikusgai jarri dute herriz herri ibiliko azokan parte hartuko duten sortzaileen lanen lagin bat eta euren jardunari buruzko informazioa. Ekimenak erakusleihen ere izan nahi du, kontsumo alternatibak ikusarazteko eta, aldi berean, sortzaile eta bezeroen arteko zuzeneko harremana indartzeko, espazio bat sortuz ahalik eta modu duinenean lan egiteko nahiz saltzeko.

Ekimen berri honen lehen geltokia Azpeitiako Azoka plaza izango da hilaren 18an, igandez, 10:30etik 18:30era. Bertaritzen direnek Emakume Baseritarrek Elikaguneko Sukaldean



Dinagu Emakume Sortzaileen Kolektiboko hainbat sortzaile. DINAGU

ekoiztutako produktuekin prestatutako jakiak dastatzeko parada ere izango dute, azokaren kanpoaldean kokatutako jantokian. Baita dastatutako produktuak erostekoa ere, zabalik egongo den Elikaguneko

**HOGEI EMAKUME SORTZAILEK MODU KOOPERATIBOAN ANTOLATUTAKO EGITASMOA DA**

dendan. Eguna amaitzeko, Sanagustin Kulturgunean, AMEBA talde gazteak kontzertua emango du. Sarrerak kulturgunean bertan edo [www.kultura.eus](http://www.kultura.eus) atarian eskura daitezke.

**AZOKETARA GERTURATU EZIN DUTENENTZAT ERAKUSKETA DAGO KOOL STUDIOAN**

## KIUB bulegoa zerbitzuetik kanpo egongo da, aldi baterako

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa itxita dagoen bitartean, Kontsumobidera joateko aholkatu dute

## Txintxarri

Udalak jakinarazi duenez, KIUB Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa itxita dago uztailearen 1etik, ekainaren 30ean zerbitzu kontratua bukatu zelako, eta horrek ez zuelako luzapenik

baimentzen. Kontratu berriaren lizitazioari "laster" ekingo dio.

KIUB bulegoa berriro martxan izan arte, herritarrei Kontsumobidera jotzeko aholkatu die udalak; Donostian dago, eta besteak beste, erreklamazioak

jarri daitezke eta aholkularitza zein laguntza eskatu daitezke. Udalak barkamena eskatu du KIUB bulegoa itxita egoteak lasarteoriatarrek sortu diezazkiekeen eragozpenengatik.



Lasarte-Oriako KIUB bulegoa. TXINTXARRI



Udal ordezkariak eta herritarrek eraso matxistak salatzen mobilizazioan. TXINTXARRI

## Ekain amaieran jazotako bi eraso matxistak salatu ditu udalak

Gertaerak salatu eta arbuizatzearekin batera, biktimek salaketak aurkeztu dituztela jakinarazi du udalak

## Txintxarri

15 minutuko isilunea egin ondoren, adierazpen instituzionala irakurri du Agustin Valdivia alkateak. Honela dio:

"Lasarte-Oriako Udalak gogor gaitzesten ditu astelehenean, hilak 28, eta asteartean, hilak 29, Sasota auzoan eta Donostiako Hipodromoan izandako eraso sexistak.

Emakumeenganako edozein eratako bortizkeria (fisikoa, ekonomikoa, sexuala...) funtsezko giza eskubideen kontrako bortxaketa eta urraketa bat da. Halaber haien senitarakoentzat, ahalik eta babes eta aitorpen publiko eta instituzional handiena behar baitute estigmatizazioari aurre egiteko eta, guztion laguntzarekin, aurrera ateratzeko.

Horregatik, Lasarte-Oriako Udalak gaitzespen arbuiztzen du emakumeen kontrako

bortizkeria matxistako edozein ekintza.

Era berean, gogorarazten du, instituzio publikoen lana ez ezik, herritar guztion lana dela indarkeria horrek gure gizartean lekuri eta justifikaziorik ez izatea, eta herritar guztiak gonbidatzen ditu berdintasuna eta errespetua lantzerantz eta aldarrikatzera.

Alde horretatik, udal honek babesa eman nahi dio mugimendu feministari, egunero lan egiten baitu indarkeria matxista salatzen eta emakume izateagatik jasandako mota guztietako erasoak gaitzesteko.

Lasarte-Oriako Udalak beti eskainiko die babes osoa bortxa jasandako emakumeei nahiz haien familiei, eta eskura jarriko dizkie Zerbitzu Sozialak, Berdintasuna, Kooperazioa eta Osasuna departamentuak dituen baliabideak.

Txalo artean amaitu dute elkarretaratzea.


## Hainbat autobus geltokitako zoruak egokituko ditu udalak

Herriko hainbat autobus geltoki asfaltatu eta egokituko lanak medio, hamar bat egunez Donostia Etorbideko (Atsobakar Egoitza) autobus geltokiak lekuz aldatuko direla jakinarazi du udalak. Andoainerako noranzkoan doan autobusa Lanbide eta Eagi Lanbide Heziketako eraikinen aurrean geratuko da, eta, Donostiarako noranzkoan doana,

berriz, Urko plazaren eta Andatza plazaren artean.

Asfaltatzeko lanek eragina izango dute Kale Nagusiko eta Zirkuito ibilbideko geltokietan ere. Kaltetuak gertatzen diren heinean, herritarrei aldi baterako aldaketan berri emango zaiela esan du.

Asfaltatze kanpaina Campezo Obras y Servicios SA enpresari esleitu zaio, 194.958 euroan, eta lan horiek barne hartzen ditu Brunet 8-12 eta Tellerigaina 21-32 eremuak.



Oraingoz, 2020ko azaroa izan da intzidentzia gehieneko hilabetea Lasarte-Orian; 275 kasu erregistratu dira. TXINTXARRI

# Eremu horian jarraitzen du Lasarte-Oriak

Euskal Autonomia Erkidego ia osoan bezala, Lasarte-Orian ere kasu positibo gehiago atzematen ari dira azken egunetan. Uztailaren 7ra arte, datu ofizialen arabera, 1.765 herritar kutsatu ditu SARS-CoV-2 birusak, ehun biztanletik bederatzi pasatxo (%9,3)

## Txintxarri

Maiatzaren 19an igaro zen Lasarte-Oria eremu laranjatik horira, eta herriko intzidentzia-tasa metatuaren kolorea ez da gehiago aldatu ordutik: 60 eta 299 artekoa izaten ari da. Edonola ere, gora edo behera egin izan du aste horietan guztietan, eta azken egunetako datuak eskuetan, gero eta altuagoa da adierazle hori: uztailaren 7an, 210,03 –datu horiek izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen azkenekoak, edizioa itxi aurretik–. Euskal Autonomia Erkidego ia osoan bezala, gure herrian ere gora egin du intzidentziak, ez beste herri batzuetan bezain nabarmen

–eskualdean dagoen Hernani, esate baterako–, baina gora, azken finean. Duela bi aste, adibidez, eremu berdean sartzeaz zegoen Lasarte-Oria, 73,51ko intzidentzia-tasa metatuarekin.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren datuen arabera, 2020ko martxo erdialdetik aurtengo uztailaren 7ra arte 1.765 herritar kutsatu ditu SARS-CoV-2 birusak, ehun biztanletik bederatzi pasatxo (%9,3). Ia guztiak osatu dira edo horretan ari dira, baina, tamalez, 23 lasarteoriarrek bizia galdu dute koronabirusagatik. Oraingoz behintzat, 2020ko azaroa izan da intzidentzia gehieneko hilabetea Lasarte-Orian; 275 kasu

zenbatu zituzten. Aurtengo apirilean zein urtarrilean eta iazko urrian ere 200 positibo baino gehiago diagnostikatu zituzten gure herrian: 248, 218 eta 215, hurrenez hurren.

## Eskualdeko egoera

Azken egunetan nabarmen igo dira Beterri-Buruntza eskualdeko udalerrietako kasuak, Hernaniko agerraldiagatik batez ere. Uztaila aurreneko zazpi egunetan 217 positibo erregistratu dituzte herri horretan.

Hernani ez ezik, Astigarraga eta Urnieta ere eremu gorrian daude gaur-gaurkoz. Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbil, aldiz, horian.



Leire Mayoz herritarrak 13.000 bozka baino gehiago jaso ditu. EITB.EUS

## Leire Mayoz herritarra izan da ikusleen lehiakide gogokoena

'El Conquistador del Caribe' saioan egindako ibilbidea saritu dute zaleek; Mikel Arruti herrikidea laugarrena izan da

## Txintxarri

Leire Mayoz herritarrak irabazi du *El Conquistador del Caribe* telesaileko sarietako bat: ezin izan du ikurrina hartu Dominikar Errepublikan, baina zale askoren bihotzak konkistatu ditu, bera izan baita ikusentzuleen lehiakide gogokoena aurtun, 13.000 bozka baino gehiagorekin. Pozarren eta hunkituta jaso zuen saria asteazken gauean. Saioan zehar erakutsitako jarrera, duela eta emandako maila eta Cacaten taldeak harekin izandako jarrerari emandako erantzuna

baloratu dituzte zaleek, beste gauza batzuen artean.

## Mikel Arruti, laugarren

Lehiakide gogokoaren lehiaketaren finalera iritsi zen beste lasarteoriar bat ere, Mikel Arruti, programako aurreneko kanporatua. Immunitate jokoa galdu eta gero, taldekideen bera nominatu zuten, eta ekoizleek ez zioten duelurik egiteko aukerarik eman, eta zuzenean bidali zuten etxera. Horrekin enpatizatu dute zaleek, eta ezer erakusterik izan ez zuen arren, laugarren postua eskuratu du sailkapen horretan.

## Indarrean dauden neurriei eutsi die LABIk

LABI batzordeak bilera egin zuen uztailaren 7an, EAEko egoera baloratzeko; gaur-gaurkoz indarrean dauden neurriak mantentzea erabaki zuen beste bi astez, baina dekretu bidez debekatu ditu kaleko edanak eta festak.

**Indarrean dauden neurriak**  
• **Ostalaritza zein merkataritza negozioren eta**

**jarduera kulturalen ordutegiak.** Beranduenez, 02:00ak arte.

- **Tabernetako eta jatetxeetako mahaia.** Gehienez ere sei lagun eseri ahalko dira elkarrekin. Barrualdean, %50eko edukiera, eta barran kontsumitzea, debekatuta.
- **Elkarte gastronomikoak eta txokoak.** 09:00etatik

02:00etara ireki daitezke. Edukiera maximoa %50, eta sei lagun mahaiko.

- **Kirol jarduerak.** Espazio itxietan, asko jota, hamar pertsona. Aire zabaleko jardueretarako ez dago aforo mugarik.
- **Ikus-entzuleak.** Gunearen edukieraren arabera. 5.000 pertsonatik gorakoetan, esate baterako, aforoaren %30.



TXINTXARRI

## Zirkuari omenaldia

Malas Compañías taldeak *Zirkus* antzezlanak ekarri du Lasarte-Oriara. 1931n eratutako Compañía Amateur del Club Deportivoren historia berreskuratu du; umezurtegiatar, ospitaleatar edota nagusien egoitzetara irribarra eta ilusioa eramatea zuen helburu, 1936ko gerrak haren ibilbidea eten zuen arte. Artista haien azalean jarri, eta emanaldiak nolakoak ziren irudikatu dute, ikusleekin.

# Barruko korapiloak askatuz, nora doan deskubritzeke

## AROA LASA LETONA MUSIKARIA


Argitaratu berri duen 'Banoa' lan laburra ezagutaraztera igoko da, uztailaren 10ean, musikari lasarteoriatarra, kultur etxeko oholtzara. Sortu duen lanaren berri eman dio TXINTXARRI-ri

### Txintxarri

Aroa Lasa Letona (Egia, Donostia, 1984) musikari lasarteoriatarra *Banoa* izeneko estreinako lan laburra plazaratu du, eta lan horrekin gozatzeko aukera izango dute herritarrek, larunbat iluntzean (19:00etan) uztailak 10, Manuel Lekuona kultur etxean eskainiko duen zuzeneko kontzertuan. Arramazka rock taldeko abeslari gisa ezagutuko duzue gehientsuenok Aroa, agian, baina, orain, pop estiloko doinuak sortu ditu eta bakarkako bideari ekin dio. Plazaratu duen azken lanaz eta larunbatean emango duen kontzertuaren inguruan galdetu dio TXINTXARRI aldizkariak.

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz iritsitako konfinamendu garaian idatzi zituen hainbat abesti Aroak. Paperean zituela, Gartxot Unsain musikariari eta lehengusuari bidali zizkion, eta, kontatu du, hark animatuta eutsi ziola hezurmamitu berri den *Banoa* proiektuari: "Maiz elkarbanatzen ditugu sortzen ditugun kantuak, eta berak animatu ninduen kanta solteez harago, zerbait osoagoa sortzera". Hala, "aukera ederra" iruditu zitzaion Gartxot bezalako sortzaile batekin berriro ere "musikarekin nahasteko". Aipatu du "aitzakia" bat ere bazela, lehengusuak elkarrekin egon eta bizitzaz hitz egiteko, euren "mobidetaz".

Bost abestirekin osatutako EP bat izan da lehengusuen arteko lanaren emaitza, eta azaldu duenez, prozesua "oso naturala eta erraza izan da". Kanta batzuen oinarria bazuen Lasak, baina hutsetik musikatzea, soinuekin



Banoa izeneko azken lana oholtzaratuko du Aroa Lasa aRok larunbatean. AROA LASA

esperimentatzea, ahotsaren kalitate ezberdinekin jolastea, eta abar, "oso interesgarria" izan dela azpimarratu du: "Asko ikasi dut". Lanaren ekoizpenaz Gartxon Unsain arduratu da, Aroaren lehengusua, eta masterizazio lanak, berriz, Beñat Antxustegik egin ditu.

### Abestien letrak

Aurrez aipatu bezala, bost abestiz osatutako lana sortu du lasarteoriatarra, eta hauek dira kantu horien izenburuak: (*E*) *negarrenez hegoak*, *Zer naiz?*, *aRo berri*, *Joker* eta *Banoa*. Eta hain zuzen ere, abesti horien letren inguruan galdetuta, azaldu du joatearen prozesuan sentitzen dituen zirrara ezberdinak ageri direla horietan.

Hain zuzen ere, EPko azken kantuaren izen berak –*Banoa*– ematen dio izenburua lan osoari ere. Azaldu du pertsona batek "ez-lekutik", norbere behar eta desiretatik aldentzen dituen dinamika batetik joaten denean egiten dituen hausnarketak biltzen dituela: "Korapiloak askatzeko eta horiei *flow* pixka bat jartzeko balio izan dit *Banoa*-k eta lan horren sortze prozesuak".

### Nora doan jakin gabe

Lanaren izenburuari erreferentzia eginda, nora ote doan galdetu dio aldizkariak musikariari, eta beste galdera batekin erantzun dio: "Hori ba ote daki norbaitek?". Ziurtatu du berak ez dakiela nora doan, baina, argi du utzi duen lekuan ez duela egon nahi, baizik eta bere baitan egon: "Hori jakinda gustura nago, ez dut gehiago behar.

Horrek nora eramango nauen? Bada, deskubrituko dut".

Oso pozik agertu da larunbatean Manuel Lekuonan, herrian eskainiko duen kontzertuarekin. Azaldu du *Banoa*-rekin ez zuela "inolako pretentsiorik": "Ez nekien argitaratuko nuen ere, eta, ez nuen inondik inora zuzenekorik buruan". Sentitu zuen, ordea, "temazoak" sortu zituztela, eta, argitaratzeko gogoa sentitu zuenean, hala egin du. Sentimendu bera izan du zuzeneko emanaldiekin ere: "Hasieran zalantza nuen kontzertuekin, gero gogoa, eta, azkenean, begira, larunbatean hortxe izango naiz". Ia lau urte daramatza zuzeneko emanaldirik eskaini gabe, eta pozarren dagoen arren, aitortu du sentimendu nahasiak ere badituela: "Auto-exigentzia eta zirraren arteko nahasketa arraro bat dut barruan".

Lasak aurreratu duenez, akustikoan arituko dira asteburu honetako emanaldian, "oso modu soilean". Uste du "oso zuzeneko potentea" dutela. Gainera, Gartxot lehengusuarekin joko duen lehen aldia izango dela ere azaldu du, eta "puntazoa" dela musikariarentzat lehen aldi hori Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan izatea. Iragarri du hantxe hustuko direla.

**"KORAPILOAK ASKATZEKO BALIO IZAN DIT 'BANOA'-K ETA HORI OSATZEKO PROZESUAK"**

**"OSO POZIK" DAGO LARUNBATEAN MANUEL LEKUONAN ESKAINIKO DUEN KONTZERTUAREKIN**

**Ttakun**  
30 urte

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE! 54€ urtean**

Euskara eta kultura bidelagun!

zuk

**54€**  
urtean

ordaindu

guk

Euskara eta  
kultura  
sustatuko  
dugu

Errenta  
aitorpenean

**%20ko**  
kenkaria  
izango duzu



**Datuak bete eta utzi Ttakuneko bulegoko postontzian**

**On-line egiteko: [www.txintxarri.eus/bazkidetu](http://www.txintxarri.eus/bazkidetu)**

**Izen-abizenak:** \_\_\_\_\_

**NAN:** \_\_\_\_\_ **Jaiotze data:** \_\_\_\_\_


**Helbidea:** \_\_\_\_\_ **Herria:** \_\_\_\_\_

**Telefonoak:** \_\_\_\_\_

**e-maila:** \_\_\_\_\_

**Kontu korrontea (IBAN):** \_\_\_\_\_

*Data eta Sinadura*




Ttakun Kultur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailaz

Bidali postaz edo utzi bulegoan:  
Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:  
[www.txintxarri.eus/bazkidetu](http://www.txintxarri.eus/bazkidetu)



Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideak irauten duen bitartean edota betebeharrak legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskainiko betebeharrak legalak dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea. TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz [datubabesa@ttakun.eus](mailto:datubabesa@ttakun.eus) helbidera.

**Informazioa eta bazkideak: [ttakun@ttakun.eus](mailto:ttakun@ttakun.eus) • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48**




## DOMINOAN

Osa itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.




Meloia, angurria, muxika eta bi izozki mota marraztu behar dituzu.



## Siestan

Bederatzi irudi-zati hauetatik sei engainariak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta, hala diruditen arren. Zeintzuk dira onak eta zeintzuk engainariak?




## SUDOKU

Uztaila eta abuztua (edo agorrila) urteko hilabeterik ederrenak dira batzuentzat, sasoi horretan ez delako eskola joan beharrik izaten. Bete itzazu bi sudokuok, lehena UZTAIL hitza osatzen duten hizkiak idatziz (U, Z, T, A, I eta L), eta bigarrena AGORRIL hitza osatzen duten hizki desberdinen bidez (A, G, O, RR, I eta L). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

U	I		T	Z
		Z		U
L				T
A	T		L	I
A		T		
U			Z	

		G		RR
RR	A		O	
I			G	RR
L				O
	L			I A
	RR		L	G






Ai ene! Trapolinera igo eta irrist egin du gizaok! Zein da bere itzal zuzena?

# Itzala



# HamaiKakoa



Aurki itzazu bi irudion artean dauden 11 aldeak.



Ordena itzazu arrain harrigarri hauek handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 6.



# Handitik txikira



# Mezua

Eman marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta esaera polit bat agertuko zaizu.



# Arraun Lagunak, Euskotren Ligako buru

Aiora Belartietia herritarra kide duen Arraun Lagunak eskifaia A Coruñaeko banderako lehen jardunaldian nagusi izan arren, ezin izan du, ehuneko bakar batzuegatik, denboraldi honetako Euskotren ligako lehen bandera Donostiara eraman

## Txintxarri

A Coruña hasi da Eusko Label eta Euskotren ligako lehia. Euskotren Ligako lau eskifaietako bitan, Hondarribia Bertako Igogailuak eta Arraun Lagunak herritarrak izan ziren buruz buru ligako lehen bandera lortzeko borrokan. Lugañeneko kideak gertu izan ziren. Uztailaren 3an, estropada irabazi zuten; bigarren jardunaldiko emaitzek, ordea, Orio Orialkiren alde jarri zuten lehia. Eta A Coruñaeko Bandera Oriora joan zen. Hala ere, ligako buru da Arraun Lagunak.

Aiora Belartietia herritarra Lugañeneko trostan egon zen; Intza Fernandez, berriz, Hondarribia Bertako igogailuak traineruan. Biek txanponaren bi aldeak bizi izan zituzten A Coruña.

Denboraldi-aurrean eta Gipuzkoako txapelketako emaitzak ikusita, estropada irabazteko aukerak zituztenaren uste osoa zuten Lugañeneko kideek, Belartietak azaldu duenez.

Galiziako estropada eremua ondo ezagutu ez arren, beroketak sententzio onak izan zituztela adierazi du herritarrak. Horregatik, lehen jardunaldian konfiantzaz beteta atera eta



Belartietia (eskuinean), lehen jardunaldiko garaipena ospatzen. AITOR ARRIZABALAGA

denborarik onena lortu zuten, 11:26.06.

Bigarren iritsi zen Donostiarra Lacturale, 2 segundotara. Orio Orialkik 5 segundo gehiago behar izan zituen eta 31 segundotara helmugaratu zen Hondarribia Bertako Igogailuak.

Urduritasuna aipatu du Fernandezek lehen egun honetako postua azaltzeko. "Ez genuen asmatu arraunketarekin. Denboraldi-aurre oso ona egin dugu eta oso ondo ari ginen entrenatzen, baina eguna iritsi eta urduritasunagatik agian ez

ginen gu geu izan", azaldu du herritarrak.

A Coruñaeko eremuan edozer gertatu daitekeela aipatu du Fernandezek. "Haize asko dago eta kale desberdintasun handia dago. Haizeari nahiko ondo egin genio aurre baina ez genuen zorte asko eduki kaleekin".

Eta lehen jardunaldian kalea ona ez zela ere nabarmendu du Hondarribia Bertako Igogailuak taldeko arraunlariak, lehen eguneko postuaren zergatia argitzeko. "Kale txarra genuen. Eta hasieratik atzean ginela

ikusita, gainera, psikologikoki beheraka egin genuen".

## Ehuneko garrantzia

Igandean, uztailaren 4an, berriz, Orio Orialkik irabazi zuen jardunaldia. Oriotarrek bost segundo atera zizkioten Arraun Lagunakeko Lugañeneri. Donostiarra Lacturalek hamaika segundo gehiago behar izan zituen helmugara iristeko eta hamabi segundora izan zen Hondarribia Bertako Igogailuak.

Bi egunetako denborak batu, eta ehuneko gutxigatik eskuetatik ihesi egin zien banderak Belartietia eta bere taldekideei. "0.04 ehunekorengatik bandera ez eskuratzeak pena eman zigun momentu horretan, aldea oso txikia zelako".

Hala eta guztiz ere, asteburuan egindako lanarekin "gustura" gelditu ziren.

Nahiz eta bigarren saioan ere laugarren geratu, Hondarribia Bertako Igogailuak taldeko kideak ere egindako lanarekin pozik daudela nabarmendu du Fernandezek. "Ehuneko batzuegatik laugarren izan ginen. Baina gustura geratu ginen gu ere lehian egon gaitzkeela erakutsi genuelako".

## Lehia handia

Denboraldi-aurrea eta A Coruñaeko banderako bi jardunaldiak ikusita, aurten Euskotren Ligan lehia izango dela iragarri dute bi lasarteoriatarrek.

Ligako lehen banderaren ostean, "lau traineruek maila altua dutela ikusi da", adierazi du Belartietak.

Egun Arraun Lagunak dago Ligako buru, zazpi puntuekin. Baina puntu gutxira ditu

arerioak: Orio Orialkik 6 puntu ditu eta Donostiarra Lacturalek 5 puntu. Azkenik, bi puntuekin dago Hondarribia Bertako Igogailuak.

Ligako buruan mantentzeko asmoa adierazi du Lugañeneko kide Belartietak. "Bukaerako emaitzak indarra eman digu lanean jarraitzeko", onartu du arraunlari gazteak.

Fernandezek, berriz, aurreko bi urteetan lehiatu behar izan duten kanporaketa ekidin nahi dutela azpimarratu du. Horretarako sailkapenean gora egiteko puntuak lortuko dituztela adierazi du. "Gure asmoa gora joatea da, playoffetik salbatzeko... Gu ere indartsu gaudela erakutsi nahi dugu, baita lehenengo postuegatik borrokatu dezakegula ere".

## Etxean irabazi nahi

Asteburu honetan herritarren eskifaiek eta gainerako Euskotren Ligako traineruek bi hitzorduri egingo diete aurre.

Larunbatean, uztailaren 10ean, V. Donostiarra bandera - Turismo Castilla La Mancha jokatu da Kontxako badiako uretan. Eta Zierbenan batuko dira igandean Edinor bandera lehiatzeko.

Belartietak onartu duenez, asteburu iristeko gogotsu daude Arraun Lagunak taldeko kideak. "Banderak irabaztea beti da pozgarria baina etxean irabazteak ilusio berezia egiten digu".

Fernandezek, berriz, Hondarribiako eskifaia A Coruñaeko postuak gainditzea helburu duela onartu du. "Saiatuko gara postu bat aurrerago gelditzen eta gure bertsio onena erakusten, lehen jardunaldiko arantza oraindik ez dugu kendu eta".

## Ostadar Inklusioko kideak, maila handiko txapelketetan lehian

Ander Goenaga surflariak bere mailako Abanca Pantin Classic Galicia Pro lehiaketa irabazi du

## Txintxarri

Ostadar Inklusioa taldeko Ander Goenaga eta Xuban Santin maila handiko txapelketan lehiatu ziren ekain bukaeran. Goenaga Abanca Pantin Classic Galicia Pro lehiaketako proba egokituan parte hartu zuen eta garaile izan

zen. Santin, berriz, maila absolutuko Bocciako Espainiako klubaren kideak lehiatu zen lehenengoz.

Abanca Pantin Classic Galicia Pro lehiaketako proba egokituko bigarren edizioa lehiatu zen ekainaren 28an Valdaviñon, A

Coruña. Nazioarteko mailako 25 surflari bildu ziren bertan, horien artean, Ostadar Inklusioa taldeko Ander Goenaga gaztea.

Talde urdin-beltzeko kideak Prone 2 mailan parte hartu zuen. Sarah Almagro, Nunno Vitorino eta Angel Curiel izan zituen arerio, eta garaile izan zen Ostadar Inklusioko kidea.

## Bocci txapelketa

Bestalde, Xuban Santin taldekidea Bocciako Espainiako klubaren kideak lehiatu izan zen Rivas Vaciamadriden, Madril.



Goenaga, arxiboko irudian. OSTADAR INKLUSIOA

Lehen aldia zuen Ostadar Inklusioa taldeko kideak maila horretan, eta zazpigarren amaitu zuen lehia.

BC2 mailako lehen fasea A multzoan lehiatu zuen Santinek. Hiru arerio izan zituen gazteak eta ez zuen partidarik irabazteko aukerarik izan. Horieta bat, gerora Espainiako txapelketan izango den Pedro Corderoren aurka.

7. postua eskuratzekeo Infatigables taldeko Francisco Manuel Castillo garaitu zuen talde urdin-beltzeko kideak, 4-1.

# Ortega, Gipuzkoako txapeldunorde

Gipuzkoako XI. Euskal Pilota egokitutako txapelketari amaiera eman zaio ekain amaieran, Zumaian. Maila ezberdinetako finalak jokatu dira eta adimen urritasuneko multzo gorriko finalean izan da Lander Ortega lasarteoriatarra

## Txintxarri

Gipuzkoako XI. euskal pilota egokituko txapelketa ekainaren 26an amaitu zen, igandez. Zumaiaiko Aitzuri pilotalekuan hiru mailatako binakako finalak jokatu ziren eta Lander Ortega herritarra izan zen lehian. Ortegak adimen urritasuneko multzo gorriko finala jokatu zuen Xabier Olaziregi lagun zuela; txapeldunordearen saria jaso zuten biek.

Ekainaren 5ean hasi zen adimen urritasuneko bikotekako lehia, Zumaian. Bigarren jardunaldia, berriz, Erreterian jokatu zen ekainaren 12an, eta finala, ekainaren 26an.

Hiru jardunaldietan Ortegak, Xabier Olaziregi lagun, Leire Esnal eta Lorea Iribar bikotea izan ditu aurrez aurre eta hiruretan izan dira garaile arerioak.

Ondorioz, Olaziregi-Ortega bikoteak txapelketako bigarren postua eskuratu du.



Lander Ortega, txapelketako partidetak batean lehian. GKEF

Beste finalei dagokionez, adimen urritasuneko multzo gorriko lehian Iraitz Huegun eta Xabier Arizkorreta izan ziren txapeldunak eta gurpil-aulkiko sari nagusia, berriz, Manu Quesadak eta Beñat Lizasok poltsikoratu zuten.

Antolatzaileek parte-hartzaileei zein laguntzaileei eskerrak eman dizkiete eta horien artean da Lasarte-Oriako Udala. Izan ere, maiatzaren 15ean, gurpil-aulkiko txapelketako banakako finala eta bikotekako jardunaldia lehiatu baitziren Loidi Barren pilotalekuan.

## Etxeberria eta Audikana infantilak, ederki Euskal Herriko txapelketan

Zilar bat, hiru brontze eta hiru marka pertsonal eskuratu dituzte Buruntzaldea IKTko igerilari gazteek

## Txintxarri

Buruntzaldea IKTko Garazi Etxeberria eta Izaro Audikana Euskal Herriko Udako Txapelketan lehiatu ziren, uztailaren 3an eta 4an, Galdakaon. Bi gazteek ederki egin zuten igerian; lau domina jantzi eta hiru marka pertsonal berritu zituzten.

Larunbat goizeko jardunaldian, Etxeberria bakarrik lehiatu zen. Buruntzaldea IKTko igerilariak 100 m. lau estilo proban parte hartu eta bigarren postua eskuratu zuen.

Gainera, bere marka pertsonala 3 segundotan hobetu zuen, 1:10,75 marka lortuta.

Arratsaldean, berriz, bi probatan izan ziren Buruntzaldea IKTko igerilariak.

Etxeberriak 100 m. libre proba egin zuen, eta Audikanak, 200 m. bular proba.

Etxeberriak hirugarren postua eskuratu zuen estilo libreko proban, 1:01,70 eginez.

Eta Audikanak bular estiloko proba luzean bere marka pertsonala 2 segundotan ondu zuen, 3:02,83.

Igande goizean Etxeberriak eta Audikanak 200 m. libre proban bat egin zuten.

Etxeberriak 2:15,37 behar izan zituen proba egiteko. Bere marka hobetu eta brontzeko domina eskuratu zuen. Audikanak, berriz, 2:25,54 marka egin zuen.

Lehiaketari amaiera emateko, Etxeberriak estilo libreko proba motza egin zuen, 50 metrokoa. Eta 28,61 segundoko markari esker, hirugarren brontzea jantzi zuen gazteak.

## Topaketa

Bestalde, Aintzane Sarobe, Nora Imaz eta Nahia Zudaire taldekideak Malagan daude uztailaren 14ra arte, Gipuzkoako Igeriketa Federazioak antolatutako topaketetan parte hartzen.

## Pilotariak, partidaz partida

Uztailaren 1ean Hernaniko Zikuñaga Papelera Torneoa hasi zen. Intza elkarteko lau pilotari ari dira lehian: Haritza Diaz de Gereñu, Pedro Elosegui eta Peru Urdanpilleta kadeteak eta Jon Pello Artetxe seniorrak.

Oraingoz, kadete mailako gazteek bakarrik jokatu dute partidaren bat. Uztailaren 3an, Haritza Diaz de Gereñu eta Pedro Elosegui bikotea 2.

kadete mailako lehiatik kanpo geratu ziren. Hernaniko Iturbe eta Mundaroko Goñi izan zituzten arerio. Herritarrek ez zuten egun ona izan eta 18-3 galdu zuten.

Uztailaren 8an, berriz, 1. kadete mailan borrokatuko den Peru Urdanpilletaren txanda izan zen. Hernaniko Manterola lagun, Gaztelekuko Gaztañaga eta Arrillaga izan zituzten aurrez aurre. Aldizkari honen edizioa itxi baino lehen ezin izan genuen emaitzarik jasotzerik izan.

## Arteaga II.a, bikoteka

Bestalde, profesional mailan, Axier Arteaga Arteaga II.ak ez du oraingoz txapelketa garrantzitsuetan parte hartzeko deirik jaso eta bikotekako partidak jokatzen ari da.

Uztailaren 4an, Elizegirekin batera Dario eta Untoriaren aurka lehiatu zen, Amurrioa, Araban. Partida berdindua izan zen eta herritarrek tanto politak egin zituen. Azken tantoan erabaki zen irabazlea: Dario-Untoria bikoteak 17-18 irabazi zuen.

Asteburu honetan, berriz, Iruñeako Labrit pilotalekuan bi partida jokatuko ditu.

Uztailaren 9an, San Fermin torneoko bikotekako finalurrekoaren ostean, lehengo asteko arerio berdinak izango ditu Arteaga II.ak, Dario eta Untoria. Oraingoz, Erasun izango du kide.

Igandean, uztailaren 11n, bikotekako finalaren aurreko partidaren parte hartuko du herritarrek. Aretxabaletarekin batera, Victor eta Bikuña bikoteari egingo die aurre.



Elosegui, artxiboko irudian. TXINTXARRI



ISAAC FARRE RICO

## Abuzturako motorrak berotzen

105 urte bete berri dituen Donostiako Hipodromoak arratsaldeko saioei ongi etorria egin zien uztailaren 4an. COVID-19 neurriak malgutzarekin batera, ikusle kopurua handitu ahal izan du Hipodromoak, eta ondorioz, zale ugari hurbildu ziren arratsaldeko lehen saioko lasterketak ikustera. Lehia handiak izan ziren eta, esate baterako, herriko Raul Ramos jockeyak, Sison zaldia gidatuz, Onda Vasca saria eskuratu zuen.

# Denboraldi atipikoari, festarekin agur

LOKE Tenis sailak 2020-2021 ikasturteari amaiera eman dio. Hasiera gorabeheratsua izan bazen ere, ederki amaitu dute ikasturtea eta ez dute COVID-19 kasurik izan. Ikasturteari amaiera emateko tenis festa egin dute. Orain, hurrengo kurtsora begira lanean ari dira

## Txintxarri

LOKEko Tenis sailak ekain bukaeran eman zion amaiera ikasturteari. Aurten ez da kirolari federaturik izan eta beraz, ezin izan dira beste herrietako gaztetxoek aurka lehiatu, baina ederki eman diote kurtsuari bukaera guztiek, Michelingo kirol guneko pistetan antolatutako tenis festan.

Mariasun Yurrita LOKEko tenis saileko arduradunak azaldu digunez, ikasturte "konplexua eta atipikoa" izan da. "Inoiz baino beranduago hasi genuen denboraldia. Gerora, behin baino gehiagotan gelditu behar izan

genuen, eskola-kirola egitea ez zegoen baimendua...".

Oztopo guztiak gainditu eta COVIDak eragin handirik izan gabe amaitu dute ikasturtea. Izan ere, tenisa kirol segurua dela azpimarratu baitu prestatzaileak. "Banakako kirola da eta ez dago harreman fisikorik".

Eta neurrietara ederki egokitu ostean, 30 ikasletik bat bera ere ez dela kutsatu aipatu du. "Zero COVID-19 kasu izan ditugu. Izan zitezkeen kutsatzeekiko beldur ginen eta errespetu handiarekin hasi ginen lanean. Protokolo guztia ondo jarraitu dugu: taldeen mugak, musukoaren

erabilera [jokatzerakoan ere ezin zen kendu]...".

Tenis jokalariek guztiak eskola kirola mailakoak izaki, lehiaketarik ez dute izan aurten. "Pena da txapelketak bertan behera utzi izana, baina hori ez dago gure esku".

Hala ere, izandako jarrerarengatik aurten guztiak txapeldun izan direla nabarmendu du. "Pandemiari nola aurre egiten dioten eta tenisean nola saiatu eta gainditu diren ikusita guztiak dira txapeldun".

Hori eskertzeko, festa antolatu zuten ikasturteari amaiera emateko.



Mariasun Yurrita (goiko lerroan, eskuineko lehena), tenis ataleko kide batzuekin. LOKE TENISA



Maila ezberdinetan partidak jokatu zituzten tenis festan. LOKE TENISA

## Donosti Cup txapelketako azken fasea martxan da

Texas Lasartearra zein Ostadar SKTko taldeak lehiatu dira; DAC txapelketako lehen edizioan ere izan dira herritarrak

## Txintxarri

Donosti Cup txapelketako maila ezberdinetako ehunka partidek Gipuzkoako zelai ezberdinak bete dituzte egunotan. Lasarte-Oriako Michelin kirol guneko futbol zelaia izan da guneetako bat eta jarduera handia izan du goiz eta arratsalde.

Asteazkenean, uztailearen 7an, B12 mailako Texas Lasartearra-Catalonia Warriors neurketa izan zen. Bi taldeak Michelingo kirol guneko 2. zelaira atera ziren euren onena emateko.

Partida hasi eta Catalonia Warriors taldearen nagusitasuna nabarmena izan zen. Texas Lasartearra taldeko kideek defentsa lan ederra egin behar izan zuten eta gutxitan iritsi ziren arerioaren area ingurura. Kataluniako taldeak, ordea, zazpi alditan zulatatu zuten herriko taldearen atea.



Texaseko jokalariek lehiatu. TXINTXARRI

Norgehiagoka amaituta arratsaldean jokatuko zen Zarautz eta Usurbil taldeen partidaren emaitzaren zain geratu zen talde zuri-urdina. Usurbilek galduz gero, txapelketan aurrera egin ahalko zuen taldeak. Tamalez, 0-1 gailendu zen eta Texaseko taldea txapelketatik kanpo geratu zen.

Ostadar SKTko taldeek, berriz, Champions League eta Europa League faseko kanporaketak jokatu zituzten atzo.

B16 eta B13 taldeek ez zuten zortetik izan final hamaseirenetan.

B13 taldearen kasuan, tanto bakarrarekin gailendu zen arerio zuen Sanse.

Madrid Union taldeak zapuztu zituen B16 taldearen esperantzak. Madrilgo taldeak 7-0 irabazi eta Champions Leagueko atek itxi zizkion talde urdin-beltzari.

B14 mailan, ordea, 0-4 gailendu zen talde urdin-beltza eta arratsaldean final-zortzirenetako partida jokatu zuen Hondarribiaren aurka. Aldizkariko edizioa ixterakoan, partida jokoan zen.

## Inklusioari bidea

Bestalde, Donostia Authentics Cup txapelketa ere jokatu da aurten Donostia Cupen. Futbol txapelketa inklusibo honen lehen edizioa izan da eta hiru taldeetako fundazioak parte hartu dute: Real Sociedad, Eibar eta Levante. Guztira lau talde izan dira Realeko bi eta Eibar, zein Levanteko bana. Horietako bietan Real Sociedad B eta Eibarren herritarrak izan dira lehiatu, Iosu Zabache eta Lander Ortega, hurrenez hurren.

Urtebete lehiaketarik gabe eman ostean, bi jardunaldi jokatu dituzte uztailearen 5ean eta 6an eta ederki lehiatu dira.

## Helburua beteta, atsedeen hartzeko garaia du Gonzalezek

20 urtez azpiko Espainiako txapelketan lehiatu da luzera-jauziko proban, eta bederatzigarren izan da

## Txintxarri

Ostadar Atletismoko Enara Gonzalez atletak bere helburua bete du 20 urtez azpiko Espainiako txapelketan. Monzon, Huescan antolatu den lehiaketan bederatzigarren postuan amaitu du herritarrak.

Gonzalezek luzera-jauziko proban parte hartu zuen. Maila handiko lehia izan zen eta Oscar Goikoetxea prestatzaileak azaldu duenez, Enarak "zail" zuen zortziko finalera sailkatzea.

Hala ere, herritarrak bere onena eman zuen, eta 5,54 metroko jauziarekin, rankingeko postu berean sailkatzea lortu zuen, bederatzigarren.

Goikoetxea pozik dago Gonzalezek denboraldian egindako lanarekin. "Aire zabaleko denboraldi ederra egin du, bere marka ia metro erdi ondu du. Orain atsedean hartuko du".



Enara Gonzalez. OSTADAR ATLETISMOA

Bestalde, Naroa Furundarena eta Maider Rekondo maila absolutuko Federazioen torneoan lehiatzeko aukeratu ditu Euskadiko selekzioak. L'Hospitalet de Llobregat, Katalunian izango dira, beraz, asteburu honetan lehiatu. Euren batera Oscar Goikoetxea entrenatzailea ere izango da.

## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Iñigo**  
Zorionak lankide! Pasa da beste urtebete, eta, dagoeneko, geroz eta gertuago dago hiru zenbakia e! Ederki ospatu genuen... tortilla eta guzti! Besarkada pottolo eta mila kilo zorion!



**Aimar**  
Zorionak, maitia zure zazpigarren urtebetetzean, zure gurasoen partez. Asko maite zaitugu.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

### Internet

- [txintxarri.eus/zorionagurrak](http://txintxarri.eus/zorionagurrak).
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

### Posta elektronikoa

- Mezua bidali [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

## OHARRA

### Biyak Bat elkarteko jardueretan izena ematea martxan

Biyak Bat egoitzako zuzendaritzak jakinarazi duenez, egoitzak eskaintzen dituen jardueretan izena emateko epea ireki da. Jarduerak zumba, yoga, lerroko dantzak, aretoko dantzak, sevillanak, memoria, gimnasia eta eskulanak dira.

Egoitza irekitzen denean guztia prest izan nahi dute eta bazkideei izena emateko eskaera egiten diete. Horretarako bazkideek bulegoko ordutegian (asteartea eta osteguna, 10:30etik 12:30era) egin behar dute inskripzioa. Taldeak murriztuak izango direla ere nabarmendu dute.

### Lasarte-Oria aldizkariko harpidetza

Lasarte-Oriako elkarte eta eragileek argitaratutako Lasarte-Oria aldizkariak bere 83. zenbakia argitaratu du ekainean. Lasarte-Oria aldizkariaren helburua, besteak beste, Lasarte-Oriako historia berreskuratu eta transmititzea da. Aldizkariko harpidetza diren herritarrek etxean jasoko zuten dagoeneko eta bertan dauden herriko elkarten berriak edo artikulu historikoak irakurriko zituzten.

Lasarte-Oria aldizkaria ikusgarri eta eskuragarri dago [www.danokkide.es](http://www.danokkide.es) orrialdean, 48. zenbakitik aurrera. Hala ere, bada eskura izan nahi duenik ere. Horregatik, etxean paperezko zenbakia jasotzeko pausoak azaldu ditu aldizkaria kudeatzen duen Danok Kide elkarteak.

Aldizkaria doakoa da. Interesatuak aldizkarian bertan aurki daitekeen harpidetza-orria bete, moztu eta Danok Kide elkarteko postontzian (Blas de Lezo 13 baxua) utzi behar dute. Aldizkaririk eskura ez dutenek, [info@danokkide.es](mailto:info@danokkide.es) helbidera bidali dezakete eskaera. Mezuan aldizkaria jaso nahi duen pertsonaren izena eta helbidea zehaztu behar direla nabarmendu du Danok Kide elkarteak.

### Kiroldegian, udako ordutegia martxan


Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak jakitera ematen du ekainaren 30etik aurrera udako ordutegia jarriko dela indarrean. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra arte iraungo du ordutegi horrek.

Ordutegia honakoa izango da:


- Asteleheneretik ostiralera:
  - Kiroldegia: 7:00-13:00 / 16:00-22:00.
  - Igerilekua: 7:00-12:30 / 16:00-21:30.
  - Mitxelín Kirol Gunea: 10:00-12:30 / 17:00-22:00.
- Larunbatetan:
  - Kiroldegia eta igerilekua: 9:00-14:00.
  - Mitxelín Kirol Gunea: 9:00-13:00.
- Igande eta jai egunetan:
  - Kiroldegia eta igerilekua: 9:00-14:00.
  - Mitxelín Kirol Gunea: Itxia.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


### Ostirala, 9




### Larunbata, 10




### Igandea, 11




### Astelehena, 12




### Asteartea, 13



### Asteazkena, 14



### Osteguna, 15



## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 9	DE MIGUEL	EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-22:00
LARUNBATA, 10	URBISTONDO	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 11	URBISTONDO	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 12	GANDARIAS-URIBE	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 13	DE ORUE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 14	DE MIGUEL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 15	LASA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

### GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

### URTE OSOKO GUARDIAK APP-A eskuragarri app store edo android marketen

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) orrialdean eskuragarri.

## SUDOKUA

2		1		4		5	3
4	5			3		2	9
9		3			2		8
	4	9	2			5	6
	3		6		5	8	
	6		4		3	7	
5		8		2	4	3	6
3		4		5			8
	1		3	8		2	5

## AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA**  
**ERRENTAN EMAN**  
 Garaje marra alokatzen da Golf plazan, Landaberri-Garaikoetxea ikastolaren frentean. Zabala, sarbide erraza, ekonomikoa. Harremanetarako zenbakia, 659 02 19 45.

**LANA**  
**ESKAINITZA**  
 Zerbitzaria behar da Lasarte-Oriako erdiguneko taberna batean lan egiteko. 666 461 595.

Sukaldari bat behar da Hernaniko enpresa industrial baterako. Zereginak: bazkariaren prestaketa eta lantokiko garbiketa. Taldeen janari prestaketan aritua izatea baloratuko da. Arduratsua. kotxea beharrezkoa da Berehala hasteko. Interesatuak 628 039 676.

**ESKARIA**  
 18 urteko neska bat naiz. Unibertsitate ikasketak egiten ari naiz, eta lan bila

nabil ekainerako eta uztaileko, umeak zaintzen batez ere. Harremanetarako zenbakia, 688 64 38 60.  
 16 urteko neska bat naiz. Ekainean eta uztailean umeak orduka zainduko nituzke: txokoetara eraman eta jaso, ikastolako lanak egiten lagundu...  
 Harremanetarako zenbakia, 640 10 64 40.  
 Pertsona eskaintzen da pertsona adinduen

barneko zaintzaile modura lan egiteko. Orduka ere izan daiteke Erreferentzia onak eta esperientzia du. Harremanetarako zenbakia, 622 747 833.  
 Pertsona eskaintzen da hainbat zereginetan lan egiteko: sukaldaritza laguntzaile, tabernan pintxoak egin, garbiketa lanak egin, pertsona adinduak zaindu edo etxeko lanak egin. Asteburuetan ere lan

egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 643 80 37 87.  
 Pertsona eskaintzen da orduka etxe garbitu edo pertsona adinduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prestutasuna. Harremanetarako zenbakia, 608 93 56 74.  
 Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala

garbiketan. Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

**SALEROSKETA**  
**SALDU**  
 Mountainbike salgai. Beltza eta arrosa. 8 urtetik aurrerako haurrentzako. Kaskoa, argiak eta osagai guztiak. Berria bezala. 150 euro. Harremanetarako zenbakia, 637 53 58 51.

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 200 euro. 646 824 466.

Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. Harremanetarako zenbakia, 670 20 78 14, Amaia.


## AGURRA

### Bihotzetik bihotzera mezuak

#### ZURE LAGUN MARI CRUZEN PARTEZ

Azken urte hauetan errespetuz eta maitasunez betetako mezu xume eta goxo partekatutitugu. Orain zauden lekura ez dira whatsappak iristen, baina jarraituko dugu bihotzetik bihotzera mezuak bidaltzen.

Muxu handi bana, zuretzat eta etxekeontzat. Zure lagun Mari Cruz.



## ESKELA


**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
 edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
 ► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz  
 Lasarte-Oriako etxe guztietan **943 37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

**Argitaratzailea**  
 Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4 (behea)  
 20160 LASARTE-ORIA  
 G-20407557

**Administraria**  
 Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**  
 Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
 Maddi Zaldua eta  
 Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**  
 Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**  
 Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
 Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
 Maider Galarzi, Mikel Yarza,  
 Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
 Aizpea Amas.

**Banatzaleak**  
 Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide  
 Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz  
 Ezeiza, Iker Lanchas, Iñigo Garcia,  
 Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

**Informatika zerbitzua**  
 IZT Informatika.

**PUBLIZITATEA**  
 Geltoki kalea 4 (behea)  
 Tel.: 943 37 14 48 (106)  
 WhatsApp: 646 82 44 66  
 publizitatea@ttakun.eus

**EGOITZA NAGUSIA**  
 Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943 37 14 48 (104)  
 WhatsApp: 688 68 35 10  
 txintxarri@ttakun.eus

**Inprimategia**  
 Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/37  
**ISSN:** 1134-0053  
**Tirada:** 8.350 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
 UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 9

**LASARTE-ORIA Kale antzerkia**  
Bigarren kale antzerki saioa ikustera ateratzeko aukera izango dute herritarrek. Trapu Zaharrak konpainiak *Por hacer un favor* obra ekarriko du herrira. Oriarte Landaberrin, 19:00etan.

**AMASA-VILLABONA Ikuskizuna**  
Hodei magoak *Harriztearen abilezia* magia emanaldia eskainiko die etxeko txikienei. Amalur plazan egitea aurreikusitako arren, euria egingo balu, Gurea zinemara lekualdatuko dute ekitaldia. Amalur plaza, 19:00etan.

## LARUNBATA 10

**LASARTE-ORIA Sagardo dastaketa**  
Ttakun Kultur Elkarteak sagardo dastaketa antolatuko du, udalarekin batera. Loidibarrengo pilotalekuan egingo dute ekintza hori, baina, bizi dugun pandemia garaiek hala behartuta, bi txandatan banatuko dute dastaketa. Lehenengoa 12:30etik 13:15era izango da, eta, bigarrena, berriz, 13:30etik 14:30era. Bertaratzeko beharrezkoa izango da aurrez izena ematea, eta horretarako, 695 78 53 89 telefono zenbakira eta [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus) helbidera idatzi beharko da. Goizeko 11:00etatik aurrera Xumela kuruak eta plaza dantzako taldeak herriko txokoak kantuz alaituko ditu. Loidibarrengo pilotalekua, eguerditik aurrera.

**LASARTE-ORIA Kontzertua**  
Aroa Lasa Letona *aRo* musikari lasarteoriatarrek, bere estreinako lan laburra aurkeztuko du: *Banoa*. Sarrerak 5,50 euroan erosi ditzakete interesa dutenek. Manuel Lekuona Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.

**ZIZURKIL Kontzertua**  
Neomak musika taldeak emanaldia eskainiko du. Kepa Junkera trikitilariarekin Sorginak taldean sei bat urtez ibilitakoak dira Neomak taldeko musikariak. Zazpi emakume osatutako taldea da. Intxaur pilotalekua, 20:00etan.

**SAGARDO**  
DASTAKETA **uztailaren 10ean**  
Loidibarrengo pilotalekuan  
Lasarte-Orian

11:00etatik aurrera herrian barrena: XUMELA, PLAZA DANTZA eta TXISTULARIAK

1. txanda: 12:30etik 13:15era  
2. txanda: 13:30etik 14:15era

Bertaratzeko beharrezkoa izango da aurrez izena ematea: Online, 695 78 53 89 (whatsapp edo deitu) edo emala: [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus)

**LASARTE-ORIA Sagardo dastaketa** Ttakun Kultur Elkarteak sagardo dastaketa antolatu du. Loidibarrengo pilotalekuan egingo dute ekintza hori, baina, bizi dugun pandemia garaiek hala behartuta, bi txandatan banatuko dute dastaketa. Lehenengoa 12:30etik 13:15era izango da, eta, bigarrena, berriz, 13:30etik 14:30era. Bertaratzeko beharrezkoa izango da aurrez izena ematea, eta horretarako, 695 78 53 89 telefono zenbakira eta [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus) helbidera idatzi beharko da. Goizeko 11:00etatik aurrera Xumela kuruak eta plaza dantzako taldeak herriko txokoak kantuz alaituko ditu. Loidibarrengo pilotalekua, eguerditik aurrera.

## IGANDEA 11

**USURBIL Emanaldia**  
Andoni Egaña bertsolariak *Neretik* izeneko emanaldia eskainiko du. Bere bizitzari lotutako egiazko gaiak plazaratuko ditu, bertso-sorta batean. Jon Ostolaza trikitilariak lagunduta osatuko dute ikuskizuna. Sarrerak uztailearen 9ra arte eska daitezke [www.usurbilkultura.eus](http://www.usurbilkultura.eus) atarian. Santuenea auzoa, 20:00etan.

**ANDOAIN Antzezlana**  
Zanguango teatro konpainiak *Aquí va a pasar algo* ikuskizuna eskainiko du. Goikoplazako frontoia, 19:00etan.

**AMASA-VILLABONA Ikuskizuna**  
Oinkari Dantza Taldeak eta Hila Teatroya taldeak *Gazte* izeneko ikuskizuna eskainiko dute. Euskal Dantza abiapuntu hartuta, dantza garaikidea eta dantza modernoak eta gorputz mugimendua uztartuko ditu, ahotsari eta testuari ere tokia utziaz. Errebote plazan egitea aurreikusitako arren, euria

egingo balu, Olaederra kirolegira lekualdatuko dute ekitaldia. Errebote plaza, 19:00etan.

## ASTEAZKENA 14

**AMASA-VILLABONA Kontzertua**  
Anakruxa taldeak musika emanaldia eskainiko du. Loatzo musika eskolaren barruan 10 urtetik gora daraman proiektua da Anakruxa, eta garai eta jatorri ezberdinetako kantuak lantzen dituzte. Onddo plazan egitea aurreikusitako badute ere, eguraldi txarra izanez gero, Gurea antzokira lekualdatuko dutela iragarri dute. Onddo plaza, 19:00etan.

## OSTEGUNA 15

**LASARTE-ORIA Tailerra**  
Arratsalde bateko perkusio tailerra antolatuko du Ttakun Kultur Elkarteak. Gorputz perkusioa, darbuka, djembea eta instrumentu brasildarrak landuko dira Zozongoko Odei Astibiaren gidaritzapean. Hamasei urtetik gorakoentzat. Izena emateko zuzendu [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus) edo 695 78 53 89 zenbakira. 5

## ZINEMA

<b>LASARTE-ORIA</b>	20:20, 22:35. Igandea: 15:50, 18:05, 19:10, 20:20, 22:35.	Igandea: 15:40, 17:30, 18:25, 20:45, 21:40	<b>Spirit-Indomable</b> Ostirala: 17:15. Larunbata: 17:15. Igandea: 17:15,
<b>ORRIARTE BHI</b>			
<b>C'Esta la vie</b> Osteguna 22:22:00.	<b>Expediente Warren: Obligado por el demonio</b> Ostirala: 21:30. Larunbata: 21:30. Igandea: 21:30.	<b>Operación Camaron</b> Ostirala: 15:45, 18:55, 21:35 Larunbata: 15:45, 18:55, 21:35. Igandea: 15:45, 18:55, 21:35.	<b>Viuda negra</b> Ostirala: 15:55, 17:25, 19:00, 19:35, 20:30, 22:00. Larunbata: 15:55, 17:25, 19:00, 19:35, 20:30, 22:05. Igandea: 15:55, 17:25, 19:00, 19:35, 20:30, 22:05.
<b>USURBIL</b>			
<b>URBIL</b>			
<b>¡A todo tren! Destino Asturias</b> Ostirala: 15:50, 18:05, 19:10, 20:20, 22:35. Larunbata: 15:50, 18:05, 19:10,	<b>Fast &amp; Furious 9</b> Ostirala: 15:40, 17:45, 18:25, 21:40 Larunbata: 15:40, 17:30, 18:25, 20:45, 21:40	<b>Raya y el último dragón</b> Ostirala: 16:25. Larunbata: 16:25. Igandea: 16:25.	

euro (Ttakuneko bazkide) eta 8 euro (ez bazkide). Landaberri Garaikoetxeako gimnasioan, 17:00etatik 19:00etara

**AMASA-VILLABONA Pailazoak**  
Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek emanaldia eskainiko dute. Musika, magia eta umorea uztartuta osatutako istorio txiki eta dibertigarria taularatuko dute, etxeko txikienei eta euren familiek, denek elkarrekin gozatu dezaten. Amalur plazan egitea aurreikusitako badute ere, eguraldi txarra izanez gero, Gurea antzokira lekualdatuko dutela iragarri dute. Amalur plaza, 19:00etan.

## OSTIRALA 16

**LASARTE-ORIA Kale antzerkia**  
Uztailako hirugarren kale-antzerki saioan, Eidabe taldeak *Gora Kasete* antzerkia eskainiko die lasarteoriatarrei. Oriarte institutua, 19:00etan.

**LASARTE-ORIA Kontzertua**  
Baionako Willis Drummond musika talde aski ezaguna igoko da Manuel Lekuona kultur etxeko oholiza gainera, eta euren rock doinuak eskainiko dizkiete bertaratzeko diren ikus-entzuleei. Sarrerak 12 euroren truke daude salgai. Manuel Lekuona Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.

**AMASA-VILLABONA Kontzertua**  
Idoia Asurmendi musikariak kontzertua eskainiko du. *Aulki jokoa* izeneko kantuarekin aurkeztu zuen bere lehen diskoa. Errebote plazan egingo dela iragarri badute ere, eguraldi txarra eginez gero, Gurea antzokira lekualdatuko dute ekitaldia. Errebote plaza, 19:00etan.

## OSTIRALA 23

**LASARTE-ORIA Kale ikuskizuna XVII.** Dantza Zirkuitua izango da. *Hiru hitzetan* ikuskizuna eskainiko dute. Emanaldi hori Euskal Herriko hiru konpainien hiru piezek osatzen dute; bakoitza 20 minutukoa da, eta sei artistek parte hartuko dute: Myriam Perezek, Jone Amezagak, Nerea Gurrutxagak, Oihana Vesgak, Amaia Elizaranek eta Xabier Zeberio. Herrian barrena, 19:00etan.

## LARUNBATA 24

**LASARTE-ORIA Kontzertua**  
Olatz Salvador Donostiako musikariak bere azken lana, *Aho Uhal* izeneko ekarriko du Manuel Lekuonako oholiza gainera. Sarrerak 12 euroren truke daude salgai. Manuel Lekuona Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.

## UZTAILEAN ZEHAR

**LASARTE-ORIA Erakusketa**  
Elkartea sortu berri duen Dinagu Emakume Sortzaileen Kolektiboak ekimen berri bat jarri du martxan. Kolektiboaren izaera mugikorra definitzen duen *Nomadak Gaitun* azoka ibiltariak, eta Azpeitian egingo dute lehen geldialdia. Elkarlanean, modu kooperatiboan, antolatutako azoka izango da, eta, moduta, bitxigintza, dekorazio zein ilustrazioaren munduan murgilduta lanean dabiltzan Euskal Herriko hogeitaz emakume sortzaileen produktuak izango dira ikusgai bertan. Azokara gerturatu ezin dutenentzako erakusketa bat ere prestatu dute herriko Kool Studion. Kool Studio, dendako ordutegian.

# Asteburuaren hasiera girotuko du Ttakun KEk

Larunbat honetarako, uztaillak 10, kantu eta dantza jira eta sagardo dastaketa antolatu ditu Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean. Eztarria busti nahi dutenek aurrez hartu behar dute hitzordua, 12:30etik 13:15era edo 13:30etik 14:15era

## Txintxarri

Uztailaren 10erako (larunbata) planik ez dutenek, hartu dezatela agenda eta hasi daitezela oharrak hartzen: Ttakun KEren eta Lasarte-Oriako Udalaren eskutik, kantu eta dantza jira eta sagardo dastaketa izango dira.

Xumela koruak, Plazadantza egitasmoko lagunek eta txistulariek Lasarte-Oriako kale eta auzoak girotuko dituzte, 11:00etatik aurrera. Herrian barrena ibiliko dira, eta geldialdi batzuk egingo dituzte: 11:00etan Oriamendin, 11:25ean Andatza plazan, 11:50ean Uzturre plazan eta 12:15ean Loidibarren pilotalekuan. Kantua, dantza eta giro ona izango dira ekitaldiko osagai nagusiak; bete beharreko osasun-neurriak ere bai, halaberrez.

Horren ostean, 12:30ean hasita eta 14:15era arte, Loidibarren pilotalekuan, bost baserriko sagardoa –Buenavista, Saltsate, Sollane, Telleri eta Zubillaga–



2019ko sagardo dastaketa. TXINTXARRI

dastatzeko aukera izango dute herritarrek, bi txandatan: lehena 12:30etik 13:15era izango da, eta bigarrena, aldiz, 13:30etik 14:15era. Ttakun KEk jakinarazi duenez, uztaillaren 10eko ekitaldi horretan parte hartu nahi

dutenek euro bat ordaindu beharko dute sagardo basoa eskuratzeko.

## Moldatutako egitaraua

Koronabirusaren aurreko urteetan, Ttakun KEk San Pedro jaietan antolatu ohi zituen kantu eta dantza jira eta sagardo dastaketa. Iazko udaran bertan behera utzi zituen ekintza horiek, eta aurten berrartu ditu, baina moldaketak egin behar izan ditu ezinbestean. Gauzak horrela, lehen aipatutako bi ekintzak uztaill hasieran burutzea erabaki du.

Ekain amaieran, berriz ere udalarekin elkarlanean, Gure Patxintxiak sari lehiaketa egin zuen Ttakun KEk, eta Lasarte-Oriako 65 urtetik gorako bi pertsona maitagarri omendu zituen: Felixi Tapia eta Patxi Manchado. Horrez gain, etxeko gazteentzat jolasak, tupper bazkaria eta bingo musikatua antolatu zituen.

## Galdera lehiaketako saridunak



Javi Yubero eta semea, Errigorako otar ederra jaso berritan. TXINTXARRI

**Errigorako saskia** San Pedro Jaiei buruzko lehiaketan galdera guztiak asmatu, eta zozketa irabazi du Javi Yubero herritarrak.



Permin Lazkanok eta Nuria Palacios jaso dituzte zapiak. TXINTXARRI

**Sorgin dantzako zapiak** Sanpedroei buruzko lehiaketan parte hartu duten guztien artean, zapiak zozkatu ditu TXINTXARRI-K.

# SAGARDO DASTAKETA

uztailaren 10ean

Loidibarren pilotalekuan **Lasarte-Oria**

1. txanda: 12:30etik 13:15era
2. txanda: 13:30etik 14:15era

11:00etatik aurrera  
herrian barrena:  
XUMELA, PLAZA  
DANTZA eta  
TXISTULARIAK

Izen-emateak:

Deitu edo whatsapp: 695 78 53 89

email: [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus)

